

Luis Iriondoren lana eskertu gura izan dute atzera begirako lagin batekin

Kultura » Horrez gain, hiru erakunderen artean Iriondoren lana biltzen duen katalogoa eta egutegia kaleratu dute.

DANEL LAUZIRIKA

Luis Iriondoren lanaren atzera begirako erakusketa aurkeztu zuten kultur etxean atzo. Erakusketa gaur bertan hasiko da, eta abendua den arte izango da ikusgai. Rikardo Abaunza kultur etxeko zuzendariak, Ekain Ormaetxea Kultura zinegotziak, José Mari Gorroño alkateak eta Luis Iriondo berak parte hartu zuten aurkezpenan.

1948tik aurrera Iriondok margotu dituen koadroak daude ikusgai kultur etxean. Hain zuzen, bere etxean gordetzen dituen olio-pinturak eta akuarelak paratu ditu erakusketan. Paisaiak, erretratuak eta autoerretratuak dira artelan guztiak. Besteak beste, Iriondok 1927ko honhardeko abatearen ingu-

Luis Iriondori idatzitako olerki bat ere irakur daiteke.

Arteskolaren eredu

Abaunzaren esanetan, «dagoeneko ez dira gelditzen» Arteskola bezala borondatez pintura klaseak ematen dituzten ekimenak. «Dena Luis Iriondori esker da. Hainbat erakusketa egin ditu, baita orain-goan zer bait osatuagoa egin nahi genuen. Iriondok Gernikako irudi politikak dituen, hauekin egutegi bat egitea pentsatu genuen. Horrez gain, Luis Iriondoren leku ispirtuala ere agertzen da, Laga».

Ormaetxeak azaldu zuenez, «omenaldiarena Abaunzaren ideia izan zen. Guri berai aurrera eramatea interesgarria iruditu zitzaigun, Iriondok obra zabala duetako. Katalogoak bere lanaren errepaso bat izan nahi du, ahal den neurrian behintzat. Obra zabala du, eta ezin izan dugu erdirik ere sartu, baina zati txiki honekin bada ere, bere obra osoari omenaldia egin nahi izan diogu».

Jose Mari Gorroñoak adierazi



Abaunza, Gorroño, Iriondo eta Ormaetxea, atzoko aurkezpenean. HIBAI AGORRIA

tela nabarmendu zuten. Iriondok, bere aldetik, ez dela omenaldi zatia adierazi zuen. Hala ere, egindako lana eskertu zuten arduradunak. Erakusketarekin batera, Euskadiko Kutzak, kultur etxeak eta Arteskolak Iriondoren lanaren zati bat biltzen duen katalogoa eta egutegia kaleratu dute elkarlanean.

Bakoitzeko 1.000 ale argitaratu dituzte, eta gernikarrek horiek

Zinekluba



Honeydripper

- **Herrialdea.** AEB, 2007.
- **Zuzendaria.** John Sayles.
- **Aktoreak.** Danny Glover, Lisa Gay Hamilton, Yaya Da Costa, Charles S. Dutton, Mary Steenburgen, Vondie Curtis Hall, Gary Clark Jr., Dra. Mable John, Stacy Keach, Absalom Adams.
- **Generoa.** Drama musikatu.
- **Iraupena.** 123 minutu.
- **Lekua.** Lizeo Antzokia.
- **Ordua.** Gaur, 20:30ean.
- **Sinopsia.** 1950eko Alabarna lanatairrean, Honeydripper Lounge izeneko taberna baten jabe den Tyrone piano-joleak bere aretoa hondamenetik salbatzea espero du garaiko blues gitarrista ospetsuena kontratatuz, Guitar Sam. Irrikaz espero den emanaldia baino egun pare bat lehenago hain justu, Sonny gitarrista gaztea helduko da herrira lan bira, Tyrone iriaguntza eskatuko dio baina she-

afal berai atxikituta eta kotai bil-

Katalogoa eta egutegia

Udal arduradunek erakusketa Iriondoren lana eskertzeko eta Arteskolako zuzendariari omenaldi xume bat eskaintzeko antolatutako

«Soldaduskan nintzela, astebeteko baimen baten truke eman nion lehen lana tenienteari»

LUIS IRIONDO > Arteskolako irakaslea, margolaria eta idazlea

Bonbardaketaren lekukoa da Luis Iriondo; hori dela eta, gai horren inguruan margotu zuen koadroa du denen artean gustukoena.

MAITE ORUE

Hainbat saltsatan murgilduta ibili da beti Luis Iriondo (Gernika-Lumo, 1922). Arteskolako irakaslea da berai sortu zenetik eta, gainera, opera bat prestatzen ere badabil.

Zein da erakusketan jarri duzun margorik zaharrena?

1948an egindako olio-pintura bat. Gernika ikusten da Ajangiztik. Horren aurretik hasia nintzen margotzen, baina kopiak egiten nituen.

Gazte hasi al zinen?

Soldaduskan. Aurretik, Frantzia nengoela, pertsona bat ikusi nuen Sena ondoan margotzen eta inbidia sentitu nuen. Neure barrura horrelako bat egin behar nuela pentsatu nuen. Umeentzako akua-

rela batzuk hartu eta zerbait egin nuen. Ez nuen arrakasta handirik izan eta albo batera utzi nuen. Os-tean, soldaduskan ekin nion berri-ro. Margoak erositu nuen, bainazuririk ez. Ez nuen diru askorik eta hortzetako pastarekin konpondutako nintzela ueste nuen [barreak]. Ez zen hala izan, ordea. 'Ecce Homo' egiten ahal egindu nintzen tapa ba-



HIBAI AGORRIA

txearen, Abaunzaren eta William Kelly artista australiarren hitzaurreak biltzen ditu. Horrez gain, Gabriela Gonzalez idazleak

ten gainean, baina hastapenerako zailegia zen. Tenienteak, aldiz, gustuko izan zuen eta saltzeko eskatu zidan. Azkenean astebete inguruko baimen baten truke eman nion.

Ordutik geratu barik margotzen.

Bai. Gauza guztiekin legez, honetan ere zenbat eta gehiago egin praktika handiagoa hartzen duzu. Aste bitartean lan egiten nuenez, domeketan joaten ginen Fernando Abaunza eta biok margotzera. Haize-Errota lagun-arte sortu genuen ondoren eta beranduago posta bidezko ikastaroa egin genuen. 1962an Arteskola jarri genuen martxan, diru askorik gabe.

Hasiera hartan 24 ume batu zitzaizkigun eta urteek aurrera egin ahala handitzen joan zen kopurua. Gaur egun 80 inguru gara.

Zelakoak izan ziren hastapenak?

Kofradia izeneko etxean batzen ginen lehenengo, baina gero eta jende gehiago ginen eta Gizarte Etxera lekualdatzea lortu genuen. Gerora etorri ginen kultur etxera.

Zenbat jende igaro da orduz gerotik Arteskolatik?

Kopuru zehatza ez dakit, baina asko. Inskripzio orri guztiak etxean ditut eta 5.000tik gora dira. Bartzuk errepikatutakoak dira, ordea. **Escolen prezioa sinbolikoa izan ohi da.**

Lehen 1.000 pezeta izaten ziren urtean. Orain bost urte, aldiz, 30 euroaigo dugu prezioa, kanpotik datorren irakaslea ordaintzeko. Materiala fabrikatik eskuratzen dugu, merkeago. Irteerak autolatu ohi ditugu museoetara eta autobusa dohainik izaten dute ikasleek.

Zer duzu nahiago, margotu ala irakatsi?

Hasiera batean margotzeak asebetzen ninduen gehien, baina, orain, besteek egiten dituzten gauzak ikusteak poztu egiten nau. Gainera, denbora gehiago ematen dut irakasten margotzen baino.

Zein da gustukoena duzun lana?

Gernikako kristoa, bonbardaketan hil zen jende guztia irudikatzen duen duelako.

Tyronek bere zoria aldatzeko aukera bikain hori galdu nahi ez badu konponbide bat aurkitu beharko du nahitaez, taberna hondamendutik salbatu eta musika aro berri bat zabaldu ahal izateko.

Laburrak

'Soy especial' antzezlanaren izango da gaur, Trinketen

KULTURA Mugagabe zirkuituaren baitan estreinatu zuen Vuela bonita korporation taldeak 'Soy especial' antzezlanaren izango da gaur, Trinkete antitxokoa da taldea, Trinkete antitxokoa da taularatuko baitu aipatutakoa. Nagore Hernaez da lanaren gidogilea eta zuzendaria eta aktore lanetan Jose Angel Escobar eta Leire Obaran ariko dira. 21:30ean hasiko da emanaldia eta 45 minutuko iraupena dauka.

'Ireki zaitetz, Sesamo', bihar, umeei zuzenduta

KULTURA 3 eta 7 urte arteko umeei zuzendutako antzezlanaren izango da bihar arratsaldean Lizeo Antzokian. 'Ireki zaitetz, Sesamo' dalanaren izenburua eta Caleidoscopio taldearen eskutik iritsi da Gernika-Lumora. Euskara hutsean, Azucena Gimeno eta Roberto Barrak zuzentzen dute lana. 17:00etan izango da eta sarrekerik lau euro balio ditu.